

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure zerbitzua aurrera eramateko, beharrezkoak izango ditugu beste enpresa batzuekin harremanak izatea. Alde batetik kutxatilak egiten dituen enpresa batekin kontaktuan jarriko gara, bere kutxatilak gure zerbitzura egokitzeko. Gure kasuan, *taquillas-sim* enpresarekin kontaktuan jarri eta beraiek sorturiko sarraila elektronikoa duten kutxatilak erabiliko ditugu, gure bezeroak xurgagailua bertan aurki dezaten. Bezeroak xurgagailuak hartzeko beharrezkoa izango du txartel elektronikoa izatea, eta honen bidez kutxatilak ireki eta zuzenean, erregistratuta geratuko da erabiltzaileak noiz eta non erabili duen.

Kutxatila horietan aurkituko dituzten xurgagailuak, enpresa bati erosiko dizkiogu.

Eskuinean agertzen den argazkiko itxura izango du guk diseinatutako xurgagailuak. Honek xurgatu egingo ditu txakurren gorotzak eta makina barruan egongo den poltsa baten jasoko dira hauek. Beste ezaugarrietako bat, txertatuta izango duen luzagailua da; bereziki, pertsona helduek eta arazo fisikoak dituztenek makurtzeko beharrik izan gabe erabili ahal izateko. Xurgagailu hauek, *Elekrolux* markakoak izango dira.



Esan bezala, xurgagailuek plastikozko poltsak izango dituzte barnean. Poltsa hauek, *amazon* web orrialdetik lortuko ditugu.

Egun amaieran, kutxatilen bidez erregistratutako datuen arabera, langile bat pasatuko da poltsa hauek erretiratu eta berriak jartzera. Gure herrikoetaz eta ingurukoetaz gu arduratuko gara; baina aurrerago, zerbitzua hedatu eta urrunago dauden herri eta hirietara iristen bada, azpi kontratazio baten bidez egingo beharko da lan hau.